

Europar Batasuneko ISR fondo **salduenen artean** kokatu dira bere bi produktu

Kutxabanke inbertsio-funts jasangarrien merkatu osoaren % 14,5 bereganatu du

- **8. eta 9. artikuluko funtsen kuotek ia bikoiztu egiten dute inbertsio-funtsen merkatuan erakundeak duen merkatu-kuota globala**
- **Aurten inbertsio-funtsetan harpidetza garbi gehien izan duen bigarren taldea izan da, sarrera berri guztien % 16 baino gehiago bereganatuta**

2023ko abuztuaren 28an. Lehen seihilekoaren amaieran, Kutxabank Taldearen ISR funtsek Espainian inbertsio iraunkorreko produktu hauetan inbertitu ziren **100 eurotik ia 15** bereganatu zituzten.

Hazkunde nabarmen honek funts jasangarrietan duen kuota **% 14,5eraino** igoarazi du, zehazki, **% 14,3ra '8. artikulua'** funtsen kasuan, eta **% 18ra '9. artikuluko'** funtsetan. Bi kasuetan, funtsen merkatuan berez duen batez-besteko kuota ia bikoiztu egin da, ekainaren amaieran **% 7,51koa** baitzen.

Azpimarratzekoa da, halaber, Kutxabanke bere **'9. artikulua'** produktuetako **bi Europako salduenen artean** kokatu dituela urteko lehen seihilekoan.

Kutxabank RF Helburu Jasangarria eta **Kutxabank RV Helburu Jasangarria** dira bi produktuok, bezeroei **kudeaketa delegatuaren** irizpidearekin eskaintzen dizkio, eta ingurumen- eta gizarte-inpaktu zehatz eta neurgarriak sortzea dute helburu, Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GEH) 17 helburuetako batean, jasangarritasunari dagokionez urrats bat gehiago eginez.

Produktu bien ezaugarria da **inbertsio jasangarriko helburu zehatz bat** izatea, **emaitza** hori nola lortu nahi den eta jasangarritasun-parametroen arabera nola **neurtuko** den azaltzeko betebeharra betetzen baitute. Inbertsio estrategiak sektore eta geografia ezberdinetako enpresekin lankidetzaren bitartez aldaketa sustatu nahi du, errentagarritasunari uko egin gabe.

Urteko lehen seihilekoan, Kutxabank Taldea inbertsio-funtsetan harpidetza garbi gehien lortu duen **bigarren erakundea** izaten jarraitu du, guztira **2.452 milioi** euro bereganatu ostean, hau da, merkatuko sarrera berri guztien **%16,3** baino gehiago.

Gaur egun, Kutxabank Taldeak **25.000 milioi** euro inguru kudeatzen ditu **inbertsio funtsetan** eta **delegatutako zorroetan**.

Jasangarritasuna helburu duen Taldea

Jasangarritasun irizpideen araberako inbertsioak beti egon dira Kutxabanken, baita unean uneko araudiak indarrean jarri aurretik ere, eta horri esker Kutxabank Gestion merkatuko aitzindaria izan da. 17 urte baino gehiago daramatzala fondo etiko eta solidarioa merkaturatzen, eta 2016an bere BGAEek sozialki arduratsuak diren inbertsio politikak aintzat hartu zituzten.

Kutxabank Gestioneak **'Elkartasun Fondona'** sortu zuen lehendabizi, gardentasuna edo iraunkortasuna bezalako kontzeptuak inbertsio munduan txertatuz. Hortik abiatuta, arriskuak aztertzeke eta hautatzeko prozesuetan ESG irizpideak hartu zituen, bere DNAREN irizpideak, alegia.

Hala ere, iraunkortasunaren aldeko apustu handia 2017an gauzatu zen, kudeatzailea UNPRI sare globalean sartu zenean, hau da, NBERen Inbertsio Arduratsurako Printzipioak betetzen direla gainbegiratzen duen erakundean. Erakunde honek, bere azken ikuskaritzan, **5etik 4 izar eman dizkie** gizarte ardurako irizpideekin eginiko inbertsioen estrategiari eta gobernantzari.

Bezereen ingurumen edo gizarte kezkei aurre egiteko funts espezifikoak eskaintzeko konpromisoa hartu zuen joeraren aurrean, Kutxabank Gestioneak kudeatzen zituen aktiboaren % 100ean ingurumen, gizarte eta gobernantza faktoreak txertatu zituen, eta horretan erabat aitzindaria izan zen.

Modu honetan, Kutxabank Gestion izan zen merkaturatutako produktu guztiak jasangarritasun-parametro berrien barruan jarri zituen lehen kudeatzailea, errentagarritasun-helburu zehatza dutenak izan ezik. Aitzindaria izan zen 8. artikulua guztiz betetzen, bere inbertsio funtsek ingurumeneko, gizarteko, eta gobernantzako ezaugarriak sustatzen dituztelako inbertsio-prozesuetan.

Orduraz geroztik, hainbat urrats eman ditu ISR eremuan erreferentziatzeko kudeatzaile izateko, batzorde zehatz bat eratuz eta erakundearen ISR politika zehaztuz. Politika horrek bere zorroek sustatu beharreko ESG ezaugarriak ezartzen ditu, tartean giza eta lan eskubideen errespetua; ingurumena eta bioaniztasuna zaintzea; gobernu oneko politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka, baita zerga gaietan praktika onak ere.

Kutxabanki buruz

Kutxabank finantza-erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego-sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesionalek baino gehiagok osatutako taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako banku kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakunde.
